



PRENTSA OHARRA

Udal eta Foru Hauteskundeak Euskadin: mugitu zure fitxa haurtzaroaren alde

UNICEF Euskal Herriko Batzordeak #MueveTuFicha kanpaina aurkeztu du. Kanpaina horren bidez, bozkatzeko orduan haurrak eta nerabeak kontuan hartzeko eskatu die herritarrei.

BILBAO/ MADRIL. 2023ko maiatzaren 4ean.- Maiatzak 28ko udal eta foru hauteskundeetan aurrean, haur eta nerabeen aldeko apustu politiko eta soziala egitea beharrezkoa dela uste du UNICEF Euskal Herriko Batzordeak. Hori dela eta, herritarrei aurkeztu dizkie alderdi politiko guztiei helarazi dizkien proposamenak, hauteskunde-programetan kontuan hartu beharko lituzketenak: 12 proposamen, haurren eta nerabeen bizitza eta ongizatea hobetzeko, tokiko eremuan dituzten eskubideak betetze aldera. Proposamen horiek ostegun honetan abian jarriko den #MueveTuFicha kanpainaren baitan aurkeztu ditu.

Isidro Elezgarai UNICEF Euskal Herriko Batzordeko presidentearen hitzetan: "Haurtzaroan eta nerabezaroan inbertitzea funtsezkoa da egungo eta etorkizuneko belaunaldien garapen jasangarria lortzeko; garapen horrek, beti ere, ekitatea izan behar du ardatz, gizarte kohesioa bermatu eta jasangarri izateko". Haurren Eskubideen Konbentzioan jasotako haurren eskubideen defentsatik abiatuta, "Gaur aurkezten ditugun proposamen hauek haurrak eta nerabeak erabakien erdigunean jartzeko aukera ematen dute" gehitu du Isidrok.

Hauteskunde-proposamenak

Euskadin, datozen hauteskundeetan botoa eman ezingo duten 18 urtetik beherako haur eta nerabeak biztanleria osoaren % 16,5 dira, 358.975 pertsona inguru (EIN 2021). UNICEF Euskal Herriko Batzordeak horiei zuzendutako proposamenak egin ditu bost ardatz estrategikoetan oinarrituta, Agenda 2030 eta UNICEFen Haurren Hiri Lagunak ekimenaren lehentasunekin (oraingoz, Euskadiko zortzi udalerrik bat egin dute ekimenarekin) bat etorritz. Gainera, proposamenak sortu eta jasotzerako orduan, haurren eta nerabeen ekarpenak jaso dira, haien zuzeneko parte-hartzea sustatuz ardatz edo proposamen bakoitzerako, UNICEFen Haur eta Gazteentzako Aholkularitza Taldearen bitartez.

Haurtzaroak eta nerabezaroak Euskadin bizi duen egoerari dagokionez: "*Haurren pobrezia*ren aurka borrokatzea, *haurrak indarkeriaren aurrean babestea*, *haien osasun mentala zaintzea*, *guztionezko hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa bermatzea*, *eremu digitalean ere haurren eskubideak sustatzea edo ingurune garbi eta osasungarrietan bizi direla ziurtatzea* dira *haurren izenean botoa ematerakoan kontuan har daitezkeen alderdietako batzuk*" azaldu du Elsa Fuentes, UNICEF Euskal Herriko Batzordearen koordinatzaileak.



HAURREN ESKUBIDEAK

Ildo horretan, UNICEF Euskal Herriko Batzordeak beharrezkotzat jo du haur bakoitza balioestea, errespetatzea eta bidezko tratamendua jasotzea, bereziki egoera ahulean dauden kolektiboak dagokienez. Hartara, familia guztiek funtsezko zerbitzuak jasotzeko aukera izango dutela bermatu beharra dago. Gainera, funtsezkotzat jotzen du haur eta nerabe bakoitzaren ahotsa kontuan hartzea eragiten dieten erabakietan. Horretarako, haurren eta nerabeen parte-hartze estrategikoa proposatzen du haur eta nerabeei buruzko tokiko politiken prestaketan, jarraipenean eta ebaluazioan.

Era berean, Euskadin haurren % 28ak¹ pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dago, eta errealitate horren aurrean, beharrezkoa da haur guztiek kalitatezko oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea izatea. Bestalde, foru- eta udal-erakundeek ingurune seguru eta garbiak bermatu behar dituzte, hartzaroaren ikuspegia duen hiri-erlaketara sustatuz. Horrela, haur eta nerabeei konpromisoa lortuko dugu maila globalean, eta, aldi berean, haurren tokiko politikaren gobernantza-mekanismoak ere bai.

#MugituZureFitxa

Testuinguru horretan, UNICEF Euskal Autonomia Erkidegoko Batzordeak #MueveTuFicha kanpaina jarri du abian, herritarrek botoa ematerako orduan, haurrak kontuan har ditzaten. Udal- eta foru-politikek eragin zuzena dute haurren eta nerabeen bizitzetan, eta, horregatik, UNICEFek herritarren boterean eragin nahi du kanpaina berri honekin, tokiko haurren alde aurrera egin ahal izateko.

Kanpainak mahai-joko sinboliko bati buruzko bideo-pieza bat du oinarri. Horren bidez, boto-emaeleen erabakiek hauteskundeetan parte hartu ezin duten milioika umeri nola eragiten dieten erakusten da. Horrela, jokalariek aukeratzen dituzten fitxa eta mugimenduen arabera, bi aukera dituzte: alde batetik, kalitatezko hezkuntza eta haur-psikologoetan inbertitu eta familientzako etxebizitza eskuragarriak bermatu ditzakete, edo bestetik, beste alde batera begiratu. Gai horietan pentsatuz bozkatzen bada, hauteskunde hauetan haurren baldintzak aldatu ahal izango dira.

Kanpainari buruzko informazio guztia esteka honetan dago eskuragarri:

<https://www.unicef.es/eus/mugitu-zure-fitxa>

UNICEFi buruz

UNICEFek munduko haur behartsuenengana iristeko leku zailenetan egiten du lan. 190 herrialde eta lurraldetan, haurrentzako lan egiten dugu, alde guztietan, egunero, guztiontzako mundu hobeto bat eraikitzeko.

Informazio gehiago:

Ainhoa Lejonagoitia Hernandez

UNICEF- Euskadiko Batzordea, Tel: 646 85 30 45

E-mail: alejonagoitia@unicef.es



¹ INE, 2021eko Bizi Baldintzei buruzko Inkesta, autonomia-erkidegoko atalasearen arabera